PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1.- SARRERA

Urruzunoko zabortegia Elgoibarko udalerrian dago (Gipuzkoa), Urruzuno auzoan. Zabortegi nagusi batek (1. gunea) eta bi gehikuntzak (2. gunea) osatzen dute.

Analisiak honako ebazpen hauetan oinarrituta egingo dira:

1. gunea: 2013ko urriaren 14ko Ebazpena, Elgoibarko udalerriko Urruzuno zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanak eta kontrola eskatzen dituena.

2. gunea: 2016ko urriaren 26ko Ebazpena, Ingurumeneko sailburuordeak emandakoa, ingurumen baimen integratua ematen diona Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak sustatutako hondakin ez-arriskutsuen Elgoibarko udalerriko zabortegiaren jarduerari (Urruzuno zabortegia, 2. gunea).

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Lehiaketa honen xedea da aurrez aipatutako ebazpenetan eskatutako laginak hartzea eta analisiak eta txostenak egitea.

1. eta 2. guneek kontrol ezberdinak behar dituzte, baina berdinak dira hein handi batean. Horregatik, bi guneen analisiak lagin berarekin egin ahalko dira, baina gune bakoitzerako txosten espezifikoak aurkeztu beharko dira, aurrerago adieraziko den moduan.

Bereizketa horren arrazoia da 2. gunea itxi aurreko fasean dagoela, eta 1. gunea, aldiz, itxi ondorengo fasean. Biek laginketa maiztasun ezberdinak dituzte.

Kontratu honi jarraituz, honako ur mota hauen analisiak egingo dira:

- Lixibiatuak.
- Lur azpiko urak.
- Azalean isurtzen diren urak

1.- Lixibiatuak: Aranbeltz errekaren galeriaren irteeran kokatutako kontrol plataforman egingo dira laginketak, zabortegiaren azpian, atxikitako planoan ikus daitekeenez.

Lixibiatuen laginak bi puntutan hartuko dira. Bata 2. guneari dagokio (LIX1), hiru hilean behin hartu beharrekoa, eta, bestea, 1. eta 2. guneetako lixibiatuen baturari dagokio (LIX3), urtean behin egin beharrekoa, aurreragoko tauletan zehaztu den moduan.

2.- Lur azpiko urak:

Hiru laginketa puntutan aztertuko dira.

- 3 piezometroa. (Zabortegitik ur gora)
- 1 piezometroa. (Zabortegitik ur behera)
- 2 piezometroa. (Zabortegitik ur behera)

Bi analisi mota egin beharko dira (ikus aurreragoko laburpen taula):

- 1. analisia. Osoagoa, urtean behin egin beharrekoa, hiru piezometroetan.
- 2. analisia. Soilagoa, hiru hilean behin egin beharrekoa, hiru piezometroetan.

3.- Azalean isurtzen diren urak

Bi lagin hartuko dira.

- Zabortegitik gora, Aranbeltz errekan.
- Zabortegitik behera, Aranbeltz errekan.

3. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Zabortegiko 1. gunea: piezometroen, lurpeko uren eta lurrazaleko uren urteko analisia:

- Urtebetean egin beharreko lanengatiko balio zenbatetsia 3.000 €-koa da (BEZik gabe).
- Urtebetean egin beharreko lanengatiko lizitazioaren aurrekontua 3.630,00 €-koa da (BEZa barne).

Zabortegiko 2. gunea: piezometroen, lurpeko uren eta lurrazaleko uren hiru hilean behingo analisia:

- Urtebetean egin beharreko lanengatiko balio zenbatetsia 8.000 €-koa da (BEZik gabe).
- Urtebetean egin beharreko lanengatiko lizitazioaren aurrekontua 9.680,00 €-koa da (BEZa barne).

Urtebetean egin beharreko lanen kontratuaren balio zenbatetsia 11.000,00 € (BEZa kanpo) da.

Urtebetean egin beharreko lanen lizitazioaren aurrekontua: 13.310,00 € (BEZa barne) da.

Eskainitako prezioa bakarra izango da, eta txikiagoa izan beharko da lizitazioaren aurrekontua baino. Kontratua egikaritzetik erator daitezkeen **zerga** eta gastu guztiak sartuko dira, baina eskainitako prezio horretatik kanpo utziko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Lizitazioaren aurrekontuak, BEZa kanpo, barruan hartu beharko ditu, gutxienez, kasu bakoitzean adierazitako maiztasuneko laginketa (ikus 4. puntua), horien guztien analisiak, kasu bakoitzerako deskribatutako parametroak neurtuko dituztenak, baita hiru hilean behin eta urtean behin txosten bana egitea ere, 4. puntuko tauletan zehazten den moduan.

Emaitzek zehaztuko dituzte neurtutako parametroak, metodologia analitikoa, beheko muga eta entsegu metodoa. Halaber, adierazi egingo dira laginak hartzeko erabilitako botila kopurua, haien mota (plastikoa edo beira), haien bolumena mililitrotan, zainketa mota eta zaindutako parametroak.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren xede diren lanak urtebeteko aldian egingo dira, 2021eko apirilaren 1etik zenbatzen hasita, eta lanen kadentzia izango da preskripzio teknikoen agiri honen 4. apartatuan jasotako zehaztapen teknikoen araberakoa.

5.- EGIN BEHARREKO LANAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK. LABURPEN TAULAK

Honako hauek dira eskaintzek bildu beharko dituzten gutxieneko betekizunak:

LIXIBIATUEN KONTROLA

- ENACek egiaztatutako laborategi bat izan beharko da.
- Zabortegiko lixibiatuak jaso eta kudeatu egingo dira, indarrean dagoen legediari jarraituz.
- Neurketa lekuak:
- Neurketa lekuak azpiegituren kokapenaren planoan ageri dira, atxikitakoan.
- Lixibiatuetan zehaztu beharreko parametroak eta neurketen maiztasuna:

LIXIBIATUAK. LABURPEN TAULA

Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol puntua		UTM koordenatuak (ETRS89) X, Y	Neurketa parametroak (datuen deskarga)	Kontrolen maiztasuna
Lixibiatuak (2. gunea)	LIX1	Emari neurgailuaren atzeko laginen kutxatila 1 zenbakikoa	X: 548659,8125 Y: 4784913.4152	pHa, eroankortasun elektrikoa, esekiduran dauden solidoak, Cl-, SO4-2, NO3+, N-NH4+, DQO, Al, Fe, Mn, Zn, Cu, Cd, Pb, Cr, Ni, As	HIRU HILEAN BEHIN OHARRA: 4. hiruhilekoko txostena LIX3ko urteko laginaren emaitzetatik abiatuta egingo da
Lixibiatuak (1. gunea + 2. gunea)	LIX3	Emari neurgailuaren atzeko laginen kutxatila 2 zenbakikoa	X: 548349,9009 Y: 4785368.5379	Emaria, tenperatura, pHa, eroankortasun elektrikoa (EE), redox potentziala, alkalinotasuna, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, NTK, $N\text{-}NH_4^+$, $N\text{-}NO_3^{2-}$, $N\text{-}NO_2^{2-}$, P total, Cl^-, SO_4, Fe, Mn, Al, As, Cd, Cu, Cr, Ni, Pb, Zn, Hg, CN*, COD, TPH, PAHs, BTEX eta fenolak	URTEAN BEHIN

- Laginak hartzeko prozedura
  Lixibiatuen laginak hartzeko, "Laginak hartzeko teknologiaren printzipio nagusiak" prozedurari jarraituko zaio, ISO 5667-2 (1191) dokumentukoari edo hura ordezkatzen duen araukoari.

- Datuen aurkezpena:
  Laborategiak bidalitako analisien txostenarekin batera lagin bakoitzaren emaitzak eta haien bilakaera interpretatzeko memoria bat aurkeztuko da, aipatutako memoria egin duen teknikariak sinatua.
  Emaitzen txostena aurkezteko epea adieraziko da. Txostena fitxategi ".pdf" fitxategi digital batean aurkeztuko da.

- Neurketen maiztasuna:
  hiruhilekokoa eta urtekoa, laburpen taulen araberakoa. Urteko laginak beti urteko garai berean hartuko dira.

- Jardueren koordinazioa:
  171/2004 Errege Dekretuak, Laneko Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duenak, enpresa jardueren koordinazioari dagokionez xedatutakoari jarraituz, enpresa adjudikaziodunak RE-PRL-04 formatuan eskatutako dokumentazioa beteko eta aurkeztuko du. Azken hori kontatua formalizatu ondoren aurkeztuko da.

LUR AZPIKO UREN KONTROLA

- ENACek egiaztatutako laborategi bat izan beharko da.

- Laginketak , indarrean dagoen legediari jarraituz jaso eta kudeatuko dira.

- Neurketa lekuak:
  PZ-1 eta PZ-2 piezometroak, zabortegitik behera kokatuak, eta PZ-3, zabortegitik gora kokatua.

  Piezometroen ahoan ez ezabatzeko moduan markatuko da zein puntutik egingo diren piezometroetako ur mailaren neurketak (hodi piezometrikoaren ahoan egon beharko da). Puntu horien X,Y eta Z koordinatuak mm-ko zehaztasunez adieraziko dira UTM ETRS-89 sisteman.

- Lur azpiko uretan zehaztu beharreko parametroak eta neurketen maiztasuna:

LUR APZIKO URAK. LABURPEN TAULA

Kontrolatu beharreko fluxua	**Kontrol puntua**	**UTM koordenatuak (ETRS89) X, Y**	**Neurketa parametroak (datuen deskarga)**	**Kontrolen maiztasuna**
Lur azpiko urak 2	Piezometroa Ur gora PZ3	X: 548756.045 Y: 4784953.655	Maila piezometrikoa, pHa, tenperatura, eroankortasun elektrikoa (EE), Cl-, SO_4^{-2}, NO_3^+, $N\text{-}NH_4^+$, DQO, Fe, Mn, Zn, Cu, Cd, Pb, Cr, Ni.	HIRU HILEAN BEHIN OHARRA: 4. hiruhilekoko txostena urteko laginaren emaitzetatik abiatuta egingo da (“1. analisia”)
	Piezometroa Ur behera PZ1	X: 548365.309 Y: 4785278.447		
	Piezometroa Ur behera PZ2	X: 548333.481 Y: 4785231.269		

Kontrolatu beharreko fluxua	**Kontrol puntua**	**UTM koordenatuak (ETRS89) X, Y**	**Neurketa parametroak (datuen deskarga)**	**Kontrolen maiztasuna**
Lur azpiko urak 1. analisia	Piezometroa Ur gora PZ3	X: 548756.045 Y: 4784953.655	Maila piezometrikoa, tenperatura, pHa, eroankortasun elektrikoa (EE), alkalinotasuna, redox potentziala, DQO, DBO5, NTK, N-NH4*, N-NO3*, N-NO2*, Cl, SO4, Fe, Mn, Al, As, Cd, Cu, Cr, Ni, Pb, Zn, Hg, CN*, COD, TPH, PAHs, BTEX, fenolak, guztizko P, FL, esekiduran dauden solidoak guztira.	URTEAN BEHIN
	Piezometroa Ur behera PZ1	X: 548365.309 Y: 4785278.447		
	Piezometroa Ur behera PZ2	X: 548333.481 Y: 4785231.269		

- Laginak hartzeko prozedura
  Lur azpiko uren laginak hartzeko, “Lur azpiko uretan laginak hartzea” prozedurari jarraituko zaio, ISO 5667-1193 dokumentukoaren 11. zatiaren edo hura ordezkatzen duen araukoari.

- Datuen aurkezpena:
  Laborategiak bidalitako analisien txostenarekin batera lagin bakoitzaren emaitzak eta haien bilakaera interpretatzeko memoria bat aurkeztuko da, aipatutako memoria egin duen teknikariak sinatua.

  Emaitzen txostena aurkezteko epea adieraziko da. Txostena fitxategi “.pdf” fitxategi digital batean aurkeztuko da, baita paperean ere.

  Urteko laginak beti garai berean hartuko dira.

- Neurketen maiztasuna:
  Laburpen taularen arabera

- Jardueren koordinazioa:
  171/2004 Errege Dekretuak, Laneko Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duenak, enpresa jardueren koordinazioari dagokionez xedatutakoari jarraituz, enpresa adjudikaziodunak RE-PRL-04 formatuan eskatutako dokumentazioa beteko eta aurkeztuko du. Azken hori kontatua formalizatu ondoren aurkeztuko da.

AZALEAN ISURTZEN DIREN UREN KONTROLA

- ENACek egiaztatutako laborategi bat izan beharko da.
- Laginketak , indarrean dagoen legediari jarraituz jaso eta kudeatuko dira.

- Neurketa lekuak:
  Neurketa lekuak azpiegituren kokapenaren planoan ageri dira, atxikitakoan.

- Lixibiatuetan zehaztu beharreko parametroak eta neurketen maiztasuna: Honako taula honen arabera:

AZALEKO URAK LABURPEN TAULA

Kontrolatu beharreko fluxua	**Kontrol puntua**	**UTM koordenatuak (ETRS89) X, Y**	**Neurketa parametroak (datuen deskarga)**	**Maiztasuna**
Ur gora (A-1) Aranbeltz erreka 1. analisia.	A1. Ur gora: 20 m, 2. gunearen 1. handitzearen eskoileraren hasieratik ur gora.	X: 548764.589 Y: 4784904.314	pHa, tenperatura, eroankortasuna, SS, Cl-, SO_4^{-2}, NO_3^{+}, $N\text{-}NH_4^{+}$, DQO, Al, Fe, Mn, Zn, Cu, Cd, Pb, Cr, Ni, As	HIRU HILEAN BEHIN
	A2. Ur behera: galeria zirkular metalikoaren irteeran eraikitako presa txikia.	X: 548353,0217 Y: 4785362.6838		

Kontrolatu beharreko fluxua	**Kontrol puntua**	**UTM koordenatuak (ETRS89) X, Y**	**Neurketa parametroak (datuen deskarga)**	**Maiztasuna**
Ur behera (A.2) 2. presa txikia. 2. analisia.	A1. Ur gora: 20 m, 2. gunearen 1. handitzearen eskoileraren hasieratik ur gora.	X: 548764.589 Y: 4784904.314	Emaria, tenperatura, pHa, eroankortasun elektrikoa (EE), redox potentziala, alkalinotasuna, solidoak esekidura, DQO, DB05, NTK, N, NH/, N-N03", N-N02", Cl^{-}, $SO^{4=}$, Fe, Mn, eta Al, As, Cd, Cu, Cr, Ni, Pb, Zn, Hg, CN-, COD, TPH, PAHs, BTEX eta fenolak	URTEAN BEHIN
	A2. Ur behera: galeria zirkular metalikoaren irteeran eraikitako presa txikia.	X: 548353,0217 Y: 4785362.6838		

Oharra: UTM koordenatuak planoetatik lortu dira. Lanak hasi aurretik kanpaina bat egin beharko da lurrean erreferentzia topografikoak hartzeko eta lagina hartu den puntua markatzeko eta identifikatzeko.

6.- ESKAINTZAK BETE BEHARREKO GUTXIENEKO BETEKIZUNAK

Ezinbestekoa da deskribatzea kontratuaren xede den zerbitzurako eskuragarri jarritako bitarteko materialak, analisiak egiteko laborategia, laginak hartzeko erabiliko diren bitarteko materialak, ezinbestean zehaztu beharko da lan horietan ibilgailu elektrikoa erabiliko diren, baita lanak ingurumena babesteko neurri zehatzekin egingo diren ere.

Halaber, nahitaezko betekizun gisa, zehaztu egin beharko da zein giza bitarteko eta bitarteko material dauden atxikita lehiaketaren xede diren zerbitzuak emateari, eta zein diren duten kualifikazioa eta beste ezaugarri garrantzitsu batzuk, laborategiko, txostenak egiteko eta landa lanak egiteko langileei dagokienez

Nahitaezko betekizuna da ere Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari aurkeztu behar zaizkion txostenen forma eta edukia azaltzea, eta xehe-xehe adieraztea egindako analisi guztien emaitzak, indarrean dagoen legediak ezarritako parametroen kontzentrazioak betetzen dituzten edo ez, neurtutako parametro bakoitzaren legezko gehieneko mugak eta abar.

Nahitaezko betekizuna da ISO/IEC 17025 2017 ziurtagiria edukitzea, entsegu eta kalibrazio laborategien gaitasuna ebaluatzeko betekizunak jasotzen dituena.

Nahitaezko baldintza da ziurtagirien bidez egiaztatzea zabortegietako uren analisietan eta kontrolean esperientzia dutela, eta azken 3 ekitaldietan gutxienez 2 eskatuko dira.

Horiek betetzen ez dituen eskaintza hautaketa prozesutik kanpo utziko da.

7.- KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa adjudikaziodunak honako balditza sozial eta ingurumeneko baldintza berezi hauek bete beharko ditu.

1.- Baldintza sozialak:

Enpresa adjudikaziodunak bete egin beharko du 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoa eta indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Plana garatzen duena.

2.- Ingurumen baldintzak:

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du berotegi efektuko gasen isurketa murrizteko lana egiten duen bitartean, beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihestuz eta erregai alternatiboak darabiltzaten ibilgailuak erabiliz, soilik behar-beharrezko bidaietarako.

Enpresa adjudikaziodunak sortutako hondakinak murriztuko ditu, materialak berrerabiliko ditu posible bada, eta gaika bereiziko ditu lan hori egitean sortutako guztiak.

Enpresa adjudikaziodunak arduraz erabiliko ditu lan horiek egin bitartean erabili beharreko baliabide naturalak.

8.- ESKAINTZAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

8.1. Prezioa

Kontzeptu horiengatik 100 puntu emango dira, gehienez.

Prezioarengatik 100 puntu eman ahalko dira, gehienez.

Proposamen ekonomikoak prezioagatik honako puntuazio sistema honen arabera balioetsiko dira:

Onartutako proposamenetako prezio eskaintzei dagozkien puntuazioak interpolazio linealez emango dira, P2 –gehieneko puntuazioa– (beherapen maximoa, 100eko gehieneko puntuazioari dagokiona) eta P1 –gutxieneko puntuazioa– puntuek definitutako zuzenaren arabera. Honela esleitzen dira puntuak:

P2.- Eskainitako prezio baxuenari dagokiona (beherapen maximoa, abzisetan), gehieneko puntuazioa emango zaio ordenatuetan, 100 puntu.

P1.- Puntu hori abzisetan bat dator lizitazioaren gehieneko prezioaren pareko prezioa ematen duen eskaintza batekin, BEZa barne, hau da, zero beherapena duena. Ordenatuen balioetan, eskaintza horri dagozkion puntuak honela kalkulatzen dira:

P1 = 100 x (1- (4 x Bmax))
(Bmax = beherapen maximoa)

P1 kalkulatzean emaitza negatiboa bada, emaitza zero bihurtuko da, Pmin=0.

Beherapentzat jotzen da (Bi) lizitazioaren prezioaren eta eskaintzaren prezioaren (BEZa barne) arteko diferentzia, zati lizitazioaren prezioa. i-k 1etik n-ra arteko balioak hartzen ditu, eta n onartutako lizitazio kopurua da.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartutako oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Proposamen ekonomiko anormalak edo neurri gabekoak:

i proposamen ekonomiko baten beherapena ausartegitzat jotzen da, eta, beraz, ekonomikoki normala ez den edo neurri gabekoa den proposamentzat jotzen da i eskaintza horri dagokion i beherapena (Bi) denean lehiaketa honetan onartutako eskaintza guztien batez besteko beherapena baino ehuneko 10 puntu handiagoa. i-k 1etik n-ra arteko balioak hartuko ditu, eta n lehiaketa honetan onartutako eskaintza kopurua izango da.

Kasuren batean eskaintza bat edo batzuk a priori beherapen ausartegia badute, baina eskaintza aztertu ondoren ulertzen bada eskainitako prezioak egokitu egiten zaizkiola proiektua egikaritzeari behar bezala justifikatu delako eskaintza horiek hasieran beherapen ausartegia izatea dakarren desbideraketa, proposamen horiek baliozkotzat joko dira, eta P1 puntu gisa berriz kalkulatuko da azken eskaintza ekonomikoenari dagokiona (Beherapen maximo berria). Hari, gehienez ere, 100 puntu emango zaizkio.

9.- BERDINKETAK HAUSTEKO IRIZPIDEAK:

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketarik badago, honela hautsiko da:

Enpresa bakoitzaren plantillan desgaitasuna duten edo esklusio sozialeko egoeran dauden langileen ehuneko handiena hautatuko da, eta berdinak badira, lehentasuna emango zaio plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena duenari, edo plantillan esklusio sozialeko arrisku egoeran dauden pertsona gehien duenari.

Berdinketa hautsi ez bada, lehentasuna emango zaio enpresa guztien artean plantillan aldi baterako kontratu gutxien dituen enpresari.

Berdinketa hautsi ez bada, lehentasuna emango zaio enpresa guztien artean plantillan emakume gehien dituen enpresari.

Horrela ere berdinketa hautsi ez bada, zozketa egingo da, aurreko irizpide batek ere hautsi ez badu.

10.- LIZITAZIOAREN PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

Prezioa kalkulatzeko, kontuan hartu da kostuen banaketa hau, lizitazioa osatzen duten partiden zamarena: Zuzeneko langileen gastua % 60; zeharkako langileen gastua % 4; horniduren gastua % 10; gastu finantzarioa % 2; ibilgetuaren amortizazioa % 5; gastu orokorrak % 13; eta etekin industriala % 6; hau da, zuzeneko gastuak gastu osoaren % 75, zeharkakoak % 6 eta beste gastu batzuk % 19.

Kostuak, kontzeptuen arabera xehakatuta	Kostuen parte-hartzearen %				Kostuen parte-hartzea, eurotan (BEZ-A KANPO)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Bestelako gastuak		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Bestelako gastuak	
Langileen g. (Zuz. e.)	0,6				6.600,00	0	0	0
Langileen g. (Zeh. e.)		0,04			0	440,00	0	0
Hornidurak	0,1				1.100,00	0	0	0
G. finantzarioa		0,02			0	220,00	0	0
Ibilgetuaren amortizazioa	0,05				550,00	0	0	0
Gastu orokorrak			0,13		0	0	1.430,00	0
Etekin industriala				0,06	0	0	0	660,00
	0,75	0,06	0,13	0,06	8.250,00	660,00	1.430,00	660,00
GUZTIRA	1				11.000,00			